



1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

AZTERKETA-EGUNA _____

AZTERKETA-TOKIA _____



ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 20 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.



1. IRAKURMENA

Ariketa-mota : EGIA ALA GEZURRA

Nola egin:

- Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko ariketa.
 - Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
 - **Ariketa-orrian** datozen esaldiak egia ala gezurra diren esan behar duzu, **erantzun-orrian** markatuz.
- Ariketa hau gainditzeko, 7 egin behar dituzu ondo.

OSPITALERA JOAN GABE, UMEA ETXEAN IZATEA

Laura Artola **emaginak** Iruñeko ospitale batean lan egiten du, eta etxeetara ere joaten da modu naturalean umea izan nahi duten emakumeei laguntzera. Laurak oso garbi dauka zein den desberdintasun nagusia **erditzeko** bi moduen artean: "Ospitalean protagonista profesionala da; umea izan behar duen emakumea gaixoa da, eta profesionalaren kontrolpean eta bere esanetara dago. Etxean, berriz, emakumeak agintzen du. Etxean ama ez da gaixoa, laster umea izango duen emakume osasuntsu eta bere buruaren jabea baizik. Etxean profesionalak badaezpada gaude, zerbait okertzen bada laguntzeko prest, baina emakumea bera da prozesua gidatzen duena eta erritmoa markatzen duena". Euskal Herrian emagin gutxi dago etxez etxe ibiltzeko prest, baina, hala ere, etxean erditzeko eskaerak gero eta gehiago dira.

emagin: *matrona*

erditu: umea izan, *parir*



Umea izateak beti dakar arriskuren bat, baina, Laurak dioenez, etxean erditzea ez da ospitalean erditzea baino arriskutsuagoa. Berak eta bere lankideek kontu handiz jokatzen dute beti. Hasteko, ez dute eskaerarik onartzen, aurretik ikusten badute konplikazioen bat (zesarea, tentsio altua, diabetesa...) gerta daitekeela. Etxean laguntzeko eskaerak onartzen dituztenean ere derrigorrezko baldintza bat jartzen dute: etxea ezin da ospitaletik urruti egon (gehienez, ordu erdia kotxez), eta auto bat eduki behar da etxe-atarian, larrialdietarako prest.

Ospitaleetan ere gauzak aldatzen ari dira, pixkanaka-pixkanaka. Lehen ia emakume guztiei egiten zieten episiotomia —umeari ateratzen laguntzeko operazioa, gero puntuekin josten dena—. Orain, berriz, guraizeak hartu aurretik bi aldiz pentsatzen dute. Ospitalera doazen emakume gehienek (%95) anestesia epidurala eskatzen dute. Azken urteotan gauzak dezente aldatu diren arren, ospitalean umea era naturalean izatea oso zaila dela uste du Laurak: "Anestesiarik jarri ez arren, emakumeek ezin dute nahi duten jarrera aukeratu. Etzanda egon behar dute nahi eta nahi ez".

Etxean umea izaten duten emakumeek senarraren, edo bikotekidearen, eta jende gehiagoren babesa izaten dute normalean. Emakumeek erabakitzen dute norekin egon nahi duten umea izaterakoan. Jende gehiegi egotea ere ez omen da komeni, zenbat eta jende gehiago egon, orduan eta luzeagoa izaten baita erditzea, baina pare bat lagun behintzat behar dira, beti egoten delako zer egin.

Bikotekideek ere beste era bateko esperientzia izaten dute. Ospitalean ikusle hutsak izaten dira askotan, zerbait hondatuko ote duten beldurrez edo. Etxean, berriz, emaginak baino lan handiagoa izaten dute, eta izerdi patsetan bukatzen dute. Laurarentzat horixe da hunkigarriena, elkarri nola laguntzen dioten ikustea. Izugarri gustatzen zaio hori. Eta umea jaio ondorengo giroa, oso berezia eta polita omen da, magikoa ia.

AIZU! aldizkaria, 279. zk.

Egokitua



1.1. ARIKETA-ORRIA

EGIA ALA GEZURRA?

E
G
I
A

G
E
Z
U
R
R
A

- | | E
G
I
A | G
E
Z
U
R
R
A |
|--|------------------|---------------------------------|
| 1. Lauraren iritiz, umea izan behar duen emakumea gaixotzat hartzen dute ospitalean. | | |
| 2. Etxean erditzen laguntzeko prest dauden emaginak gutxi dira Euskal Herrian. | | |
| 3. Ospitaleetan profesionalak emakumeen esanetara egoten dira beti. | | |
| 4. Laurak dio ospitalean erditzea etxean erditzea baino arriskutsuagoa dela. | | |
| 5. Etxea ospitaletik urruti baldin badago, ez dute eskaerarik onartzen. | | |
| 6. Ospitaleetan orain episiotomia egiten diote emakumeari bi aldiz pentsatu gabe. | | |
| 7. Etxean umea izatekotan, emakumearekin batera bi lagun gutxienez egotea komeni da. | | |
| 8. Emakumeak protagonismo handiagoa du etxean erditzean. | | |
| 9. Bikotekideek antzeko esperientzia izaten dute ospitalean edo etxean erdituta. | | |
| 10. Etxeetan erditzean emaginek bikotekideek baino lan handiagoa izaten dute. | | |



1.2. ZUZENKETA-ORRIA

Irakurgaia: "OSPITALERA JOAN GABE..."

Ariketa-mota: EGIA ALA GEZURRA

Baremoa: Ariketa hau gainditzeko, 7 egin behar dira ondo.

ERANTZUN ZUZENAK

1	E	6	G
2	E	7	E
3	G	8	E
4	G	9	G
5	E	10	G



2. IDAZMENA

Egitekoa: INPRIMAKIA BETETZEA

Oharrak:

- Hurrengo orrialdeko inprimakia bete behar duzu.
- Saiatu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar duzu.

GAIA: Opor-egun batzuk eskatu dituzu lantokian, baina orain konturatu zara, zure etxekoekin batera bidaia bat egiteko, hobe duzula egun horiek geroago hartzea.

Bete ezazu inprimakia arduradunari zure asmoa azaltzeko eta eskaera egin egunak aldatzeko.

Oharra: Kontuan izan ez duzula eskutitza idatzi behar. Hurrengo orrialdeko inprimakia bete behar duzu.



ESKAERA-ORRIA

NORK

Izen-abizenak:

Lanpostua:

NORI

Izen-abizenak:

Kargua:

AZALPENA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ESKAERA

.....

.....

.....

.....

.....

....., 200...koaren ...a